

## **GIROA HOBETZEKO PROPOSAMENAK ETA IKASLEEK BEREN GAIN HARTZEN DITUZTEN ZEREGIN-MOTAK**

- Ikasleek bazkaria arbuiazen dutenean, hura zerbitzatzeko irizpideak zehaztu,.
- Ikasleek dena jan dezaten tematzea edo jatera derrigortzea (eta zigortzea) ekiditea.
- Otorduan presa saihesteko estrategiak bilatzea. Aukera bat izan daiteke eskolaz kanpokoak otorduaren ostean ez jartzea.
- Otorduan musika lasaigarria jartzea.
- Jantokian baxuago hitz egitea sustatzea.
- Jantokiko arauak ezartzen edo menuak diseinatzen parte hartzea.
- Beren gain hartu nahi dituzten zereginak aukeratzea (desberdinak ikastetxearen arabera). Adibidez:
  - Adinaren arabera, honako hauek: erraztatzea, txikienei laguntzea, kozinatzea...
  - Entsaladak gatzozpintzea, janaria eta ura zerbitzatzeta.
  - Talde desberdinen artean zereginak egunez egun txandakatu joatea.
- Zereginak elkarrekin antolatzea:
  - Ikastetxe batean honako zeregin hauek egiteko antolatu dira: bankuak jarri eta platerak zerbitzatu (txikiak); ogia banatu, batu, txikienei eskuak garbitzen lagundu eta siestara lagundu; eta konposta zaindu (nagusiak).
  - Beste ikastetxe batean jantokiko arduradun-talde bat sortu dute, ziklo bakoitzeko ordezkari bat duena. Horretan hainbat gaitasun eta adineko ikasleak daude eta jantokiko langileekin aldizka batzen dira zereginak antolatzeko.
- Esertzeko moduak. Zenbait ikastetxetan gelakideekin esertzea eskatzen diete ikasleei, beste zenbaitetan, aldiz, adin desberdineko ikasleak nahasten dituzte elkarri lagun diezaioten.
- Haien arteko harremana hobetzeko hainbat proposamen dago, adibidez, asteen behin harreman gutxi daukaten pertsona batekin esertzea; edo gatazka-egoera batean ikaskide bati laguntza eskatzea.
- Janaria etxetik ekartzea alternatiba interesgarritzat jotzen da; izan ere, hainbat irakasle ere gauza bera egiten dute (itunpeko ikastetxeetan aukera ematen dute baina gaur egun arauak hori debekatzen du).
- Langileen txandaketak. Begirale-hezitzaileek adin edo mahai desberdinetatik pasatzea beti pertsona berberekin ez kointziditzeko.
- Aisialdia. Jantokian jolasak egotea, hala nola partxisa.
- Jolastokian joko eta material gehiago egotea baloia baimenduta dagoen egunetan eta baloirik gabeko egunetan ere, eta horiek ondo zaintzea (paper batean edo kortxoan jartzea hori norik eramaten duen, itzultzen duela bermatzeko).

Ikastetxe batean proposatzen dute begirale-hezitzaileek patioan zehar banatzea, taldean geratu beharrean.